

Hitzordu

Irakurketa Mintegia

ITZIAR ZUBIZARRETA



Galtzagorriren deialdiari erantzunez, hilero biltzen da *Irakurketa mintegia*; 15 bat lagun dira, aurreko urtean argitaratu diren haur literaturako liburuak irakurri eta baloratzen dituztenak. Taldea oso heterogeneoa da eta, bertan, aurki ditzakegu irakasleak, liburuzainak, hainbat eskolatan liburutegia osatzen edota bultzatzen dabiltzan irakasle-liburuzainak, dinamizatzailleak...

Mintegiaren helburuak oso apalak dira. Baina, bere apaltasunean, praktikotasun handikoak dira, izan ere, irakurketa sustatzeko teknikak zabaltzeko eta Galtzagorriren hainbat egitasmo elikatzeko funtzioa betetzen dute. Azken urtean 0 eta 12 urte bitartekoentzat argitaratu diren liburu guztiak irakurtzea da bidean agertzen den lehen erronka. Irailean izaten du hasiera mintegiak, eta lehenengo liburu multzoa ematen zaio irakurle bakoitzari: aldi berean, liburu bakoitzaren gainean osatu behar duten fitxa teknikoaren berri ematen zaie partaideei. Fitxa horretan, liburuaren datuak biltzeaz gain, hausnarketa txiki bat egin behar du irakurle bakoitzak: liburuaren generoa, gaia eta tonua azaldu; ilustrazioaren berri eman; argumentuaren laburpen txiki bat egin, eta zer adinetako haurrentzat den gomendagarria adierazi.

Liburu bakoitza bi partaidek irakurri eta baloratzen dute; ondoren, bakoitzak bere iritzia plazaratuko du mintegian. Zenbaitetan beste irakurle batzuek aztertzen dituzte hainbat libururen atalak, hasierako biek oso iritzi kontrajarriak izanez gero, eta, horrela, argudio gehiago izango dira liburua baloratzeko. Inoiz eztabaida sutsuak sortzen dira liburuen pertsonaien sinesgarritasuna dela, tarteko pasadizoak direla, ilustrazioaren espresioa edota narrazioaren erritmoa direla... Ikasturtea aurrera doan heinean, liburuen alde onak eta txarrak mahai gainean jartzen dira, eta argudioak gero eta indar handiagokoak izaten dira.

Hasieran, liburu batek izan ditzakeen sekretuak aurkitzen saiatzen dira mintegikideak: istorioak eta pertsonaiek liburuari egiten dioten





ekarpena, erritmoa, tonua... Izan ere, mintegiaren helburuetako bat irakurzaletasuna sustatzeko teknikak zabaltzea da. Nola aurkeztu liburu bat, nola kilikatu haurrak liburu horren irakurketarako interesa sortzeko. Liburuen «tripa» guztiak ateratzen saiatzen dira partaideak, batez ere gustuko liburuak suertatzen direnean. Izan ere, izugarrizko garrantzia du liburu bat ikasleei eskaintzeko moduak eta, horretarako, liburuaren muinetatik abiatu behar dugu haien interesa pizteko. Zenbaitetan, guk gustukoak ez ditugun liburuak, haurrek atsegin dituztela ohartzen gara. Nola jokatu horien aurrean? Baliteke, merkatuaren eraginez adibidez, horiek izatea hainbat haurrek aukeratuko dituzten liburu bakarrak. Zilegi al da dibertsio hutsez liburuak aurkeztu eta eskaintzea? Dударik ez dugu egiten: gaztetzoen balioen artean publizitateak eta modak eragin handia dute, eta, fenomeno horri aurre egin ordez, liburu horiek saihestu gabe, bestelako liburu batzuk eskaintzen dizkiegu aldi berean, eta, hainbatetan, asmatu egiten dugu gure gomendioekin, bestetan, ez...



Ikasturteak aurrera doazen neurrian, eta aurrean hirugarrena bete du mintegiak, irakurketa-irizpideak zehazten joan dira; izan ere, gustuaz gain, badaude ezaugarri batzuk liburu bat on bilakatzen dutenak, eta horiek arakatu behar dira. Liburu on batek irakurlearen interesa suspertuko du, haren unibertsoa zabaltzen duen neurrian, edota haren sentiberatasuna garatu eta errealitatearen gune ezkutatuak erakutsiko dizkio. Liburu on batek irakurketa sortzailea suspertuko du irakurlearengan,



irudien esanahia interpretatu eta munduarekiko duen ikuspegia osatzen lagunduko dio. Azken finean, mintegiaren helburuetako bat horixe bera da: irakurlearengan gaitasun literarioak piztea. Zenbaitetan, liburuek gorabeherak dituzte; zenbaitetan, teknikak huts egiten du; beste batzuetan, egoerak edota pertsonaien eraikuntzak egingo du huts. Hori guztia lantzea lagungarri suertatzen da liburuak hobeto baloratu eta haiei buruzko azterketa haurrei azaltzeko. Horregatik, datorren ikasturtean mintegia osatzeko asmotan gaude eta, hainbat saiotan, alor tekniko batzuei helduko zaie. Irakurle kualifikatuak behar baititugu liburuen bitartekaritza egokia egin ahal izateko.

Beraz, orain artekoa kontuan izanda, irakurlearen irizpideak garatzea da mintegiaren helburu nagusia; ez da helburu bakarra, ordea. Mintegiak elikatu egiten ditu Galtzagorriren hainbat egitasmo, eta informazio-iturri etengabea da. Batetik, argitaratzen diren liburu guztien iruzkin txiki bat azaltzen da Galtzagorriren webgunean. Egiaren alde, ez dugu lortzen inoiz taldearen lana argitaratze-erritmoarekin bat etortzea; urte naturala eta ikasturtearen lehia dago tartean; ekainean bukatzen da aurreko urteko liburuen irakurketa eta fitxak osatzea, baina, gurean, irakurketak du lehentasuna gomendioaren gaineratik. Bestalde, mintegia erabiltzen dugu Galtzagorrik dituen hainbat zeregini aurre egiteko. Fundación Germán Sánchez Ruipérezekin eta Civicaneekin elkarlanean aritzen gara irakurketa-gidak osatzen. Galtzagorriko kide bat aritzen





da lan horretan, eta, jakina, mintegiaren informazioaz baliatzen da, neurri batean bederen. Horri erantsi behar zaio Galtzagorrik urtero izaten duela Euskadi sarian eta Espainiako sarian parte hartzeko gonbidapena, eta horrelako mintegi bat lagungarria suertatzen da jendea formatzeko eta horrelako epaimahaietan iritziak defendatzen ikasteko.

Liburu-irakurketa horiek eta irizpideak zehazteak lagundu egiten digu «Liburuen Altxorra» egitasmoa elikatzen ere. Egitasmo hori oso ezaguna da Gipuzkoa eta Bizkaiko herri txikietan. 150 liburu dituen kutxa handi bat ibiltzen da herriz herri eskola txikietan. Bertan, dinamizatzaile batek liburuak aurkeztu eta irakurketa-proposamenak egiten dizkie haur zein irakasle taldeei. Mintegiak zerikusi handia du egitasmo horretan dauden liburuen aukeraketan. Galtzagorrik hobetu egin du hainbeste arrakasta izan duen egitasmo hori eta «Aholkularitza zerbitzu» bat sortu du eskola txikietako irakasleentzat, bibliotekak sortu eta dinamizatzeke. Horren berri ematen da Galtzagorriren webgunean, «Liburuen Altxorra» atalean. Bertan agertzen da, aldi berean, hautazko bibliografia bat, hemendik aurrera osatu egingo dena.

Mintegiaren bidez, Galtzagorrik argi du egiturazko lan bat garatzen duela eta lan xume horren inguruan, mugimendu txiki bat sortzen ari dela irakurketaren alde, irakasle eta bibliotekariaren artean. Liburuak ezagutzera eman eta irakurleak formatu egiten ditu aldi berean. Hori



guztia osatzen da aldiaren behin antolatzen ditugun ikastaro eta jardunaldiekin. Mintegi nahiz ikastaro horien inguruan elkartzen diren profesionalen joera kontuan hartuta, indarra hartzen dugu gure lanean, aurrera egin eta irakurle taldeak sortzeko. Irakurketak bitartekariak behar ditu eta mintegiaren zeregina bitartekariak formatzea da, haiek haurrei irakurketa atsegin eta aberatsak proposatzeko. Galtzagorriren helburu nagusia Euskal Haur eta Gazte Literatura sustatzea baita.



BEHINOLA aldizkariaren harpidetza orria.

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bete ondorengo fitxa.

Izen-deiturak:.....

Helbidea:.....

Herria: Posta-kodea:.....

BEHINOLA aldizkariaren urteko kuota (20 €). 2 zenbaki urtean.

Euskadiko Kutxaren honako kontu-korrontean sartu:

3035 0242 68 242 0 00247 1

eta bidali fitxa ordainketa-agiriarekin batera Galtzagorri elkartera.

Galtzagorri elkartera. Zemoria, 25, behea. 20013 Donostia. Tel.: 943 471 487